1. HAUTAGAITZA – KALITATEA HELBURU

Lehenengoz, ESKERRAK eman nahiz dizkizugu prozesu honetan emandako kolaborazio eta babesagatik, izan ere, gure Hautagaitzako (1) informazioan diogun bezala, boto bakoitzak garrantzia du, zureak ere, eta oso garrantzitsua da Gipuzkoako Psikologiako Elkargo Profesional honek azken urte hauetan Profesioak Lurralde Historiko honetan merezi duen aintzatespenaren alde burutu dugun lan-ibilbidearekin jarraitu ahal dezan, baita gure kolektiboarentzat lan arlo berriak eta prestakuntza serioa sustatuz. Halaber, ondo egindako lanaren, gure profesioa zuzentzen duen araudi deontologikoari eutsitakoa, ondorio den zuen aintzatespenaren aldeko lanarekin jarraitu nahi dugu.

Gure lanbide komun hau gehiago ikusarazteko helburuarekin, Elkargoko barne-prozesuei **JARRAIPENA** emango dien **KALITATE** sistema inplementatzeko eta Gipuzkoako PEOan jasotzen duzuen prestakuntzaren kalitatean garapenari jarraipena emateko (jada Eusko Jaurlaritzaren baitako prestakuntza-entitate ofiziala gara, prestakuntza modu ofizialean aitortzeko pausu garrantzitsua), garapen proiektuarekin jarraitzea proposatzen dizuegu. Baita, deontologia jarduketen mailan estandar zorrotz eta ziurren bitartez gizartearen aurrean **Psikologiako profesionalen jarduketen KALITATE eta seriotasuna ikusaraziz.**

Lan asko burutu da urte hauetan, Ikastaro eta Jardunaldi desberdinetan (Gipuzkoako PEOeko urteroko memorietan kontsulta daitezke) parte-hartu duzuenengandik aintzatetsia, halaber harro gaude Psikologiako Fakultatearen aintzatespena jaso izanagatik, baita Psikologiako Graduko ikasleriaren partetik ere, Elkargoa Ikasle Elkartuaren figuraren bitartez haiei gerturatuz; baita ere nazioko beste PEOen partetik, zeintzuetara nazio mailan garrantzitsuak diren gaien aditu gisa gonbidatuak izan garen (Generoa, intrusismo profesionala, Telepsikologia edo online Psikologia, Giza zerbitzuak, Jarduera hasiera, PEOtik komunikazioa kolektibo profesional zein gizarteari…), eta Psikologiako Kontseilu Nagusiaren partetik, egungo Gobernu Batzordeko pertsonek burutako lanak bereak eginez.

Oraindik proiektu eta ekimen asko gelditzen zaizkigu burutzeko eta hauek aurrera eramateko behar bezain prest eta motibatuta gaude, zuk aukera hori ematea espero dugu.

Hauteskundeei dagokionez gure Estatutuek dioten bezala, egun GIPUZKOAKO PEO-eko GOBERNU BATZORDERAKO HAUTESKUNDE HAUETAN BOZKATZEKO gelditzen den aukera bakarra MODU PRESENTZIALA da. Eta, egia esateko, bozkatzeko modu hau hautatu baduzu, abenduaren 1ean, larunbata, 10:00etatik 17:00etara, zurekin egoteko irrikitan gaude, eta zuzenean zure botoa hautetsontzian sartu ahalko duzu.

Zure konpainiaz disfrutatu ahal izatea espero dugu.

1.-HAUTAGAITZA- KALITATEA HELBURU

https://www.youtube.com/watch?v=x3HmF54ea5o&feature=youtu.be

https://www.youtube.com/watch?v=Hq0xIfOSSc0&feature=youtu.be

Nere partez eta

1.-HAUTAGAITZA- KALITATEA HELBURU

Osatzen duten pertsonen partez

Mila esker,

Ana Mª Sánchez Alías.

Edozein zalantza edo galdera, mesedez, jarri gurekin harremanetan, ezagutzen gaituzue, eta zuen eskura jartzen dugu hurrengo helbide elektronikoa

kopgipuzkoa@gmail.com